

## Ikuspegi postkolonialak

### 10.1. Sarrera

Ikuspegi postkolonialak<sup>254</sup> kultura- eta literatura-ikasketetan jaio ziren, eta zenbait gizarte-zientzian finkatu dira; hala, 80ko hamarkadaren amaieran sartu ziren NHetan. Oso korrante plurala da, eta askotariko ikuspegiak ditu; hain zuzen ere, korrantea osatzen duten egileak nagusiki Hegoalde globaleko herrialdeetakoak dira, eta toki horietako esperientzietatik eta arazoetatik abiatutako azterketak egiten dituzte. Ezaugarri bat partekatzen dute: haien ustez, gaur egungo nazioarteko ordenaren konfigurazioa (desparekotasun handiak dituena eta mendebaldarrak ez diren gizarteak baztertzen dituena) garai kolonialean Mendebaldeak Hegoaldeari buruz sortu zituen zenbait pertzepzio eta diskurtso negatibotan oinarritzen da, eta gaur egun ere horiek errepikatzen jarraitzen du, duen botereari esker. Ikuspegi hori defendatzen dutenek zalantza jarri dute NHen joera edo norabide mendebaldetar tradizionala, eta ikuspegi berri eta erradikalak ekarri dituzte tradizioz alde batera utzi izan diren gai batzuei buruz.

Korrante horrek hainbat jatorri teoriko ditu. Horien artean, Hegoaldeko herrialdeetako pentsalari antikolonial asko aipa daitezke; esaterako: Franz Fanon, zeinaren teoriak zioen kolonizatuek kulturalki gutxiago izatearen konplexua gainditu behar zutela, eta eragin handia izan zuen 60ko

<sup>254</sup> Postkolonialismoaren oinarriko ezaugarriak hemen ikus daitezke, adibidez: YOUNG, Robert (2003), *Postcolonialism. A very Short Introduction*, Oxford University Press, Oxford; eta ABRAHAMSEN, Rita (2007), «Postcolonialism», in Martin GRIFFITHS (arg.), *International Relations Theory for the Twenty-First Century. An Introduction*, Routledge, London, 2. or.

eta 70eko hamarkadetako mugimendu iraultzaile eta antikolonialetan<sup>255</sup>; Aimé Césaire poeta, *negrotasun* kontzeptuaren (gaztelaniaz, *negritud*) asmatzailea eta Frantziaren Antilletako sustrai afrikarren defendatzailea, asimilazio kulturalaren eta arrazismo kolonialaren aurrean; eta Mahatma Gandhi, Indiaren independentzia lortzeko indarkeria ezeko erresistentziaren asmatzaile eta sustatzailea. Beste inspirazio-iturri batzuk ere izan ditu: marxismoaren tradizio kritikoren zenbait alderdi, esaterako, Antonio Gramsciren *kultura-hegemonia* eta *subalterno* ideiak; zenbait egile postestruturalistaren ekarpenak, hala nola Jacques Derridaren eta Michel Foucaulten lanak, adibidez, diskurtsoaren eta boterearen arteko harremanari dagokionez; feminismoa, generoa aztertzeko interesagatik eta beste zapalkuntza-iturri batzuekin duen harremanagatik; eta indiar historiografiaren Ikasketa Subalternoen Taldea, zeinak zalantzan jarri baitzuen boteredunek kolonialismoaren garaiari buruz idatzitako historia, eta beste historia bat proposatu zuen, kolonizatuek botere inperialaren aurrean izandako esperientzietan eta erresistentzian oinarritutakoa. Hain zuzen ere, egile postkolonialek aski aplikatu dute motibazio hori munduko politikari buruzko ikerketetan<sup>256</sup>. Nolanahi ere, ikusiko dugun moduan, esan daiteke ikasketa postkolonialak Edward Said-en *Orientalism*<sup>257</sup> liburua argitaratu zenean sortu zirela, 1978an.

Korronte horren ezaugarriak eta helburuak azaltzeko, beharrezkoa da *postkolonial* hitzari ematen dioten esanahia azaltzea, sarritan gaizki interpretatzen baita. Terminoa ez da kolonia zaharren independentziaren ondorengo garaiari buruz ari, eta ez du garai kolonialarekiko denborazko banaketa bat markatu nahi. Aitzitik, «post» horrekin adierazi nahi du garai kolonialeko berezko pertzepzio eta botere-harremanak bizirik daudela gaur egun, nazioarteko harreman garaikideetan, zeinetan Mendebaldekoa ez den «beste» gutxiagozat jotzen baita. Hain zuzen ere, ikuspegi postkolonialek nazioarteko errealitatea ulertu nahi dute, eta, horretarako, azterketen erdigunean jartzen dituzte Iparralde kolonizatzaile «ohiak» He-

<sup>255</sup> Frantziaren Martinika koloniatik etorritako psikiatra eta idazle horrek, 50eko hamarkadan, kulturak menderatze kolonialean izandako rol nagusia aztertu zuen: azpiratuak menderakuntza hori gainditzeko saiatzen dira, zapaltzaileen kultura, ideologia eta hizkuntza barneratuz; aldiz, horrek eraginda, kolonizatzaile zuriekiko kultura- eta arraza-gutxiagotasuna barneratzen dute eta, ondorioz, beren zapalkuntza mantentzea errazten. Beraz, zapalduak herriak askatzeko prozesu politiko iraultzaileak behar dira, bai eta eskema kultural berriak ere, norberaren patuaren kontrolari buruzko kontzientzian eta gutxiagotasun-sentimendua ezabatzean oinarrituak. Liburu hau nabarmentzen da: *Los condenados de la tierra*, 1961 (gaztelaniazko argitalpena: FCE, Mexiko, 1963).

<sup>256</sup> Ikuspegi horren adibide bat: GUHA, Ranajit (1997), *Dominance without Hegemony*, Harvard University Press, Cambridge (AEB).

<sup>257</sup> SAID, Edward W. (1978), *Orientalism*, Pantheon Books, New York (gaztelaniazko argitalpena: *Orientalismo*, Debolsillo argitaletxea, Bartzelona, 2003).



goalde (des)kolonizatuarekiko dituen botere- eta menderatze-harremanak, zeinak, hain justu, garai kolonialetik baitatoz. Harreman neokolonial horiek askotarikoak dira: ekonomikoak, politikoak eta militarrik ez ezik, baita kulturalak eta psikologikoak ere.

Ildo horretan, esan daiteke ikasketa postkolonialek bi helburu nagusi dituztela. Batetik, agerian jartzea nola gaur egungo nazioarteko harremanetan desberdinkeria sistemiko handia dagoen, non Mendebaldeak pribilegioak eta kontrola baititu eta munduko gainerako tokien marjinazio ekonomikoa, politikoa eta kulturala inposatzen baitu. Bestetik, ezagutzera ematea zer egoeratan dauden Hegoaldeko gizarte eta gizatalde mendeak eta baztertuak, testuinguru historiko eta sozial zehatzean, bai eta zer erresistentzia-bide dituzten zapalkuntzaren eta marjinazioaren aurrean; bestela esanda, kolonizatzaile «ohi»aren eta kolonizatu «ohi»aren arteko harremanak. Ildo horretan, azterketa horiek kulturari eta arrazari buruz duela zenbait mende sortutako diskurtso eta estereotipoetan jartzen dute arreta; horiek oraindik ere iraun egiten dute, eta herri kolonizatu «ohi»ak gutxiagotzat jotzen dituzte. Hala, beren interesgune nagusiak identitatea, kultura, arraza eta generoa dira.

Horrez gain, esan behar da gaur egun korrante horretako egile askok Iparralde/Hegoalde (edo erdigune/periferia) banaketa gainditu dutela beren azterketetan. Horren ordez, munduko gizarte heterogeneo bat dagoela onartzen dute, eta zenbait gizarte-taldek, arrazioa edozein dela ere —arrazak edo generoa, esaterako—, edozein tokitan izaten duten mende-kotasun-esperientzian jartzen dute arreta.

Ikus daitekeenez, ikasketa postkolonialek eta postestrukturalismoak antzeko ezaugarri asko dituzte; esaterako: zalantzan jartzen dute NHen izaera eurozentrikoa, hala korrante hegemonikoena nola kritikoa; kontakizun handi hegemonikoak baztertzeko dituzte, ustez unibertsalak izan arren, egiaz Mendebaldeak inposatuak baitira; garrantzia ematen diete identitateari eta *alteritatearen* ideari (*otherness*) Mendebaldekoak ez diren identitateez aritzean; eta *kokatutako*, hots, testuinguru zehatz bakoitzeko esperientzietan oinarritutako ezagutza sortzea dute helburu.

## 10.2. Orientalismoa. Mendebaldearen nagusitasunaren diskurtsoa eta zibilizazioaren alorreko hierarkia

Esaten da ikasketa postkolonialak *Orientalismoa* liburua argitaratu zenean sortu zirela, 1978an; Edward Said palestinar-iparramerikar literatura-irakasleak idatzi zuen, eta Mendebaldeko kontakizun hegemonikoak zalantzan jarri eta berrinterpretatu zituen lehenengoa izan zen. Liburuak oinarritat hartzen ditu Antonio Gramsciren hegemonia kulturalaren teo-



ria eta Foucaultek diskurtsoari eta ezagutzaren eta boterearen arteko harremanari buruz egindako planteamenduak, *orientalismo* kontzeptua eratzeko. Orientalismoa da Mendebaldeko kulturen (literaturan, pinturan, eta abarretan.) XVIII. mendetik sortutako ikuspegi estereotipatua, *Ekialde* deritzonari, hots, herri arabiar-musulmanei eta horien kulturari buruzkoa. Ikuspegi horrek askotariko gizarteak biltzen ditu, kontuan izan gabe horien arteko desberdintasun handiak; aldi berean, aurreiritzi eurozentriko eta gezurrezko irudi erromantizatuz beteta dago, eta herri horiek atzeratu, azpigaratu, irrazional, hedonista, exotiko, emozional eta, azken finean, gutxiagotzat jotzen ditu. Aldiz, horren azpian dagoen ideia arabera, Mendebaldeko gizarteak garatua, arrazionala, zibilizatua eta maila altuagokoa da. Hala, zibilizazioen artean nolabaiteko hierarkia zegoela onartzen zen.

Iruditeria horrek bi funtzio nagusi zituen iraganean. Lehenik, Europari bere burua definitzeko balio zion: Mendebaldeari buruzko ikuspegiak sortzeko, Europako balioen kontrako ezaugarriak egozten zitzaizkion Ekialdeari. Bigarrenik, kolonizazioa justifikatzeko balio zuen, hots, Ekialdea menderatzeko, kolonizatzeko, hezteko eta eraldatzeko, XVIII. mendearen amaieratik, zibilizazioaren eta aurrerabidearen izenean.

Baina, Saidek azaltzen duenez, iruditeria hori indarrean dago oraindik ere, esaterako, komunikabideetan eta zinematan. AEBren zerbitzura dagoen tresna da, Ekialde Hurbilean nagusitasuna izateko eta haien hurbileko aliatuari, hots, Israeli babes emateko. Iruditeria horrek inperialismoa, arrazismoa eta, azken buruan, Iparraldearen gaur egungo nagusitasunezko nazioarteko harremanak babesten ditu.

Beste egile batzuek Hegoalde global osoan aplikatu dituzte Saidek mundu arabiar-musulmanari buruz emandako argudio horiek, eta bidea eman diete ikasketa postkolonialen funtsezko argudio batzuei. Hala, azpimarratzen da antzinatek datorren ikuspegi bitarra dagoela gizateriari buruz, zeinak «ni zibilizatua eta beste basatia» bereizten baititu, Ikechi Mgbeoji-ren metaforaren arabera. Hau da, Mendebalde zibilizatu eta bakezalearen aurrean, Mendebaldekoak ez diren herriek buruzko diskurtso bat sortu da, zeinak ez baitu herri horien artean bereizketarik egiten, eta primitibo, azpigaratu, anarkiko eta oldarkortzat hartzen baititu. Iraganean, ikuspegi horrek nazioarteko politika bideratu zituen, eta Europak Hegoalde globalean izandako jardunbideak justifikatu: herrialde horien auzietan politikoki eta ekonomikoki esku hartzea, kolonialismoa, lurraldeak kentzea, inperialismo kulturala, esku-hartze militarrik eta herrien genozidioa. Berrikiago, iruditeria horrek berri ere indarra hartu du zenbait kontakizun berriren bidez, hala nola terrorismo islamistari edo *porrot egindako estatuei* buruzkoak. Ikuspegi horiek, hasteko, arazo horiei buruzko interpretazio sinplista egiten dute, eta arazo horiek Hegoalde kaotiko eta oldarkorriari egozten dizkiote soilik; bigarrenik, Hegoaldea munduko ba-



kearentzako mehatxu-iturritzat jotzen dute<sup>258</sup>; eta, hirugarrenik, Iparraldea herri biolento eta heldugabeak baketzen eta garatzen saiatzen den parte-hartzaile moduan agertzen dute, berriki Afganistanen eta Iraken kasuetan gertatu den moduan<sup>259</sup>.

Laburbilduz, ikasketa postkolonialek agerian jartzen dute *zibilizazioen arteko hierarkian* oinarritutako diskurtsoak daudela, eta hierarkia hori Mendebalde zibilizatuaren nagusitasunean eta Hegoalde globaleko herrien gutxiagotasunean funtsatzen dela. Era berean, aditzera ematen dute zer ondorio politiko izan dituzten diskurtso horiek, Europak munduan izandako *misio zibilizatzailea* justifikatu baitute. Mgbeojiren arabera, Mendebaldeko liberalismoaren dogmek berezkoa dute beste herri batzuk zibilizatzeko helburu hori, korronte horren ustez Mendebaldeko sinesmenak eta esperientzia historikoak unibertsalak eta maila altuagokoak baitira<sup>260</sup>. Hala, oinarrian duen ikuspegiak Iparraldearen aldean falta zaionaren arabera (subiranotasuna, instituzio sendo eta egonkorak, garapen ekonomikoa, etab.) definitzen du Hegoaldea, eta munduko gainerako herrialdeek jarraitu beharreko zibilizazioaren paradigma modura aurkezten du Iparraldea. Gainera, planteamendu horiek bat datoz historiaren ikuspegi linealarekin, aurrerabidera doan ibilbidearenarekin.

### 10.3. Kolonialismo diskurtsiboa

Egile postkolonialek badute beste ezaugarri komun bat: garrantzia ematen diote botereak eta ezagutzaren sorrerak duten loturari. Horren inguruan, Michel Foucaulten eta postestrukturalismoaren ideiak jarraitzen dituzte, zeinek, boterea zentzu ekonomikoan edo militarrean ulertu beharrean, diskurtso menperatzaileak sortzeko gaitasun modura hartzen baitute: diskurtsook errealitate soziala ulertzeko benetako modutzat agertzen dira, eta, horrez gain, errealitatean eragiten duten jardunbideak dira, hura moldatzen eta eraikitzen baitute. Horrenbestez, ikasketa postkolonialen ikerketa-objektu nagusietako bat dira Mendebaldeak Hegoaldeko herri buruz sortutako diskurtsoak eta irudikapenak: ulertu nahi dute nola

<sup>258</sup> Horren muturreko adibidea da 90eko hamarkadan zabaldutako Huntington-en arazoak, zeinaren arabera mundu arabiar-musulmana mehatxua baita Mendebaldearentzat ondorioz, «zibilizazioen arteko talka» gertatuko baita. Ikus HUNTINGTON, Samuel P. (2004), *The Clash of Civilisations and the Remaking of World Order*, Simon and Schuster, New York.

<sup>259</sup> MGBEOJI, Ikechi (2006), «The Civilised Self and the Barbaric Other: Imperialism, the Clash of Civilisations and the Challenges of Human Security», in *Third World Quarterly*, 27(5), 855.-856. or.

<sup>260</sup> MGBEOJI, 2006, 855.-856. or.



bihurtu diren menperatzaile, eta desmitifikatu eta zalantzan jarri nahi dituzte.

Mendebaldearen eta munduko gainerako tokien artean dauden asimetriak direla-eta, lehenengoak askoz indar handiagoa du besteari buruzko diskurtsoak eraikitzeko. Iparralde globalak «irudikatzeko gaitasuna» du<sup>261</sup>; ezagutza eta identitateak ekoizten ditu, eta, hala, gizateria osoaren izenean hitz egiteko eta beste ahots batzuk isilarazteko ahalmena du. Horregatik, *kolonialismo diskurtsiboaz* hitz egin daiteke; gaur egungo (neo)kolonialismoaren funtsezko ezaugarria da<sup>262</sup>, eta zenbait estrategia erabiltzen ditu: Mendebaldeko ezagutza unibertsalizatzea eta normalizatzea, eredu edo erreferentzia bihurtuta; «besteak» orientalizatzea<sup>263</sup> eta ezaugarri irrazionalak eta negatiboak egotea; eta Mendebaldekoak ez diren «besteek» sortutako ezagutza ikusezin bihurtzea.

Mendebaldeak sortutako eta inposatutako diskurtso horiek zenbait ezaugarri eta ondorio erabakigarri dituzte nazioarteko harremanetarako: a) Mendebaldekoa ez den munduari buruzko kategoria orokorregiak erabiltzen dituzte (Hirugarren Mundua, Ekialde Hurbila), zeinak dauden desberdintasun historiko eta kultural handiak ezkututzen baitituzte; b) ez dituzte aipatzen Mendebaldeak Hegoaldeko arazokiko dituen erantzukizunak, hala kolonizazioaren inpaktuari nola egungo nazioarteko ordenari dagozkionak; c) Hegoaldeko herrialdeak bigarren mailako rol batera baztertzen dituzte nazioarteko politikan, mehatxu potentziala direla edo, kasurik hoberenean, Mendebaldearen laguntza behar dutela uste dutelako; d) ezaugarri positiboak esleitzen dizkiete Iparralde globaleko balioei eta kulturari, eta horrek Hegoaldean jarduteko eta esku hartzeko askotariko moduak justifikatzen ditu (politikoak, militarrik, ekonomikoak); eta e) botere-harreman oso desorekatuetan oinarritutako nazioarteko ordena mantentzen laguntzen dute erabat.

Nazioarteko auzi askoren ikerketan aplikatu daitezke diskurtsoen inposizioaren eta horrek nazioarteko politikan dituen ondorioen arloa. Esaterako, arma nuklearrak ez ugaritzeari buruzko gaian. Biswas-en arabera, estatatu batzuek arma nuklearrak izan ditzakete, baina oro har pentsatzen da Hegoaldeko herrialdeek ez dituztela izan behar, gutxiago garatuta daudelako, gizakion bizitza gutxiago errespetatzen dutelako, edo ez direlako

<sup>261</sup> CHOWDHRY, Geeta eta Sheila NAIR (2004), «Introduction. Power in a Postcolonial World. Race, Gender and Class in International Relations», in CHOWDHRY, Geeta eta Sheila NAIR, *Power, Postcolonialism and International Relations*, Routledge, Londres, 15. or.

<sup>262</sup> HERNÁNDEZ, Rosalva Aída eta Liliana SUÁREZ (arg.) (2008), *Descolonizando el feminismo. Teorías y prácticas desde los márgenes*, Ediciones Cátedra, Madril, 13. or.

<sup>263</sup> SAID, Edward W. (1978), *Orientalism*, op. cit.



oso arrazionalak. Hala, AEBren kanpo-politikako diskurtsoak *estatu maltzur* (*rogue states*) moduan irudikatzen ditu Ipar Korea eta Iran, estatu horiek armamentu nuklearra bilatu dutelako. Alabaina, ez da aintzat hartzen arma nuklearrak erabili dituen herrialde bakarria AEB izan dela, hain zuzen ere. Beraz, postkolonialentzat, kontua ez da estatuen arteko lasterketa nuklearra bera aztertzea, arma nuklearrak nork izan ditzakeen erabakitzen duen diskurtsoa nork eta zergatik ezartzen duen baizik<sup>264</sup>.

Postkolonialek Hegoaldeko herrien beste arazo batzuk ere aztertu dituzte, mundu mailako desberdinkeriekin lotutakoak. Arazo horiei buruzko interpretazio nagusiek botere-harreman jakin batzuk erakutsi eta horien azpiko kausak bazter uzten dituzte. Hala, gosea eta pobrezia gizarte primitibo eta oldarkorrek in lotzen dituzten irudiek interpretazio desitxuratua sortzen dute, arazo horien jatorria alde batera uzten baitute, eta horiek konpontzeko politikak ezartzea zailtzen dute. Laburbilduz, Hegoaldeko desberdinkeriei eta beste arazo batzuei aurre egiteko, ezinbestekoa da Mendebaldekoak ez diren besteei buruzko irudikapenak zalantzan jartzea, Nair-en ustez<sup>265</sup>.

#### 10.4. Identitatea, hibridotasuna eta arraza

Identitatearen gaia ere funtsezkoa da ikasketa postkolonialetan; bereziki aztertzen da zer eragin izan duen kolonizazioak Hegoaldeko herrietako identitateen eraikuntzan eta eraldaketan, eta zer ondorio izan dituen gaur arte. Fanonen eta beste egile batzuen ekarpenei jarraituz, kolonizazioak kulturalki eta psikologikoki izandako eragin negatiboan dago abiapuntua, kolonizatuen identitatean eta autoestimuan eragin baituzten. Alabaina, egile postkolonialek hainbat posiziotatik heltzen diote gai horri.

Batzuek tokiko kulturak eta identitateak defendatzen dituzte, baztertutako herrien bizimoduen biziraupena bermatzeko, globalizazioaren in-dar boteretsuen aurrean. Borroka anticolonial askok legitimitatea irabazi zuten kolonoenaz bestelakoa zen identitate nazional bat aldarrikatuz; horien antzera, gaur egungo zenbait herriren erresistentzia politiko eta kulturaleko borrokan ere beharrezkoak izan daitezke identitatearen inguruko diskurtsoak, herria bateratzeko<sup>266</sup>. Horren adibide izan daiteke negrotas-

<sup>264</sup> BISWAS, Shampa (2014), *Nuclear Desire: Power and the Postcolonial Nuclear Order*, University of Minnesota Press, Minneapolis (AEB).

<sup>265</sup> NAIR, Sheila (2017), «Introducing Postcolonialism in International Relations Theory», in McGLINCHEY, Stephen, ROSIE WALTERS eta CHRISTIAN SCHEINPFLUG (arg.), *International Relations Theory*, E-International Relations Publishing, Bristol (Erre-  
gion). (<https://www.e-ir.info/publication/international-relations-theory/>).

COLINI, Albert J. (1999), *Navigating Modernity: Postcolonialism, Identity and International Relations*, Lynne Rienner, Boulder (AEB).



naren filosofia, zeinak gizarte beltzen balioak eta identitatea goratu baitzuten, haien eskubideak berresteko modu gisa.

Alabaina, beste egile batzuek identitate esentzializatuak defendatzea baztertzeko dute, ezinezkoa delako jatorrizko eredu kultural tradizionalera itzultzea, eta jarrera politiko eksklusibistak eta oldarkorrak ekar ditzakeelako (etorkinak kanporatzea, garbiketa etnikoa, etab.). Hala, haien ikuspegiak *hibridotasunean*<sup>267</sup> jartzen du arreta: kolonizatzaileen eta kolonizatuen identitateak eraldatu egin dira, izan duten harremana dela eta. Bhabharen arabera (1994), identitate hibridoak egoteak botere kolonialak porrot egin duela esan nahi du: alde batetik, bi identitate kontrajarriren arteko (kolonoa/kolonizatua, zuria/beltza) erabateko desberdintasunean oinarritutako diskurtso koloniala asaldatzen du, aitzat hartzen baititu ezaugarri mistoak eta jariakorrak dituzten identitateak; bestetik, agerian jartzen du kolonizatua ez zela inoiz guztiz menderatu, ez zela biktima pasibo izan, baizik eta aktiboa izan zela eta erresistentzia egiteko gaitasuna izan zuela<sup>268</sup>. Laburbilduz, egile batzuen ustez, hibridotasuna da diskurtso eta aginte kolonialaren aurreko nolabaiteko erresistentziaren eta subertsioaren adierazpena. Interpretazio hori gaur egungo testuinguruan ere aplikatu da; izan ere, tokiko gizarteek Mendebaldeko kultura indartsuaren jardunbide eta sinboloetara egokitzeke erabili duten sormenezko modutzat jo izan da hibridotasuna<sup>269</sup>. Orokorrean, egile gehienek ustez, talde-identitateak eraikiak eta jariakorrak dira eta, beraz, ez dira finkoak eta esentzialak, hibridoak baizik. Identitateak asko eta askotarikoak dira (adibidez, ez dago identitate beltz bat, hori ulertzeko askotariko moduak baizik), eta horrek munduaren ikuskera plurala sustatzen du, identitateari buruzko ideia zapaltzaileak alde batera utzita<sup>270</sup>.

Aurrekoarekin lotuta, ikuspegi postkolonialek egindako ekarpen nagusietako bat (bai eta postestrukturalistena ere) izan da nabarmentzea arrazak identitate-iturri modura funtzionatzen duela, bai eta pertsonak eta taldeak zapaltzeko modu gisa ere. Adibidez, Anibal Quijano peruarrek azpimarratzen duenez, XVI. mendean espainiarrek sortutako sistema kolonialean, arraza eta arrazakeria elementu erabakigarriak izan ziren gutxiagotzat jotako herriak sozialki eta ekonomikoki menderatzeko, eta, gero, faktore horiek klasean eta generoan oinarritutako gizarte-sailkapeneko beste modu

<sup>267</sup> Hibridotasunaren nozioa lan honen bidez sartu zen ikasketa postkolonialetara: NANDY, Ashis (1983), *The Intimate Enemy. Loss and Recovery of Self under Colonialism*, Oxford University Press, Delhi.

<sup>268</sup> BHABHA, Homi K. (1994) *The Location of Culture*, Routledge, Londres.

<sup>269</sup> ASHCROFT, Bill (2001), *Post-Colonial Transformations*, Routledge, Londres.  
men aipatua: ABRAHAMSEN, Rita (2007), «Postcolonialism», *op. cit.*, 117. or.

<sup>270</sup> ABRAHAMSEN, Rita (2007), «Postcolonialism», *op. cit.*, 118. or.



batzuekin artikulatu ziren. Erabakigarriak izan ziren *boterearen kolonialtasun* deritzona eraikitzeke, hau da, Europako potentziek ezarritako botere-sistema global bat, mundu-merkatu kapitalistara bideratutako ekoizpen-ereduaren zerbitzura dagoena. Arrazakeria horrek, ideia, balio, jarrera eta jardunbide multzo modura ulertuta, eragina izan du gizarte-harremanen eremu guztietan, eta gaur egun ere eragina du<sup>271</sup>.

Garai kolonialaren bereizgarri izan zen «bestea» arraza desberdineko modura eraikitzea, baina, horrez gain, gaur egungo eztabaida asko zedarritzen ditu, hala nola segurtasun nazionalari, immigrazioari, nazionalismoari, nazioarteko laguntzari eta herri indigenen eskubideei buruzkoak. Beherago ikusiko dugun moduan, bereziki interesgarria da ikustea nola sartu diren arraza eta arrazakeria biopolitika globalaren azterketan. Alabaina, egile postkolonialentzat arraza ez da bere kabuz aritzen; aitzitik, harreman konplexua du zapalkuntza sortzen duten beste faktore batzuekin, esaterako, etnia, klase sozial edo generoarekin. Lotura horri *interseksionalitate* deritzo, eta ezin elementuk besteekiko lehentasunik ez izatea du ezaugarri<sup>272</sup>.

Hain zuzen ere, horrek bultzatu du 90eko hamarkadatik hona feminismo postkoloniala sortzea; korrante horrek aipatutako elementuak gurtzatzen ditu, emakumeek testuinguru zehatz bakoitzean bizitzen dituzten zapalkuntza moduak aztertzeke. Emakumeak toki guztietan zapalduta daudela onartzen duen arren, «Hirugarren Munduko emakumea» txiro, tradizional eta biktimizatu moduan irudikatzen duen kategoria bakar eta monolitikoa arbuatzen du, eta, aldi berean, zalantzan jartzen du emakumeen arteko elkartasun unibertsalaren ideia. Heteropatriarkatua modu desberdinean bizitzen dute etniaren, arrazaren eta klasearen arabera Hegoaldeko emakumeek, bai eta gizartearen bazterretan dauden Iparraldeko emakumeek ere, esaterako, afroamerikarrek<sup>273</sup>. Patriarkatuaren aurka ez ezik, emakume zuriak beltzen aldean pribilegiatzen dituen arrazismoaren eta klasismoaren aurka ere borrokatu behar da.

### 10.5. Biopolitika globala eta nekropolitika

Ikuspegi postkolonialek agerian jarri nahi dituzte nazioarteko ordenako harreman asimetrikoak eta Mendebaldeak egiten duen menderakun-

<sup>271</sup> Ikus, adibidez: QUIJANO, Anibal (2014), *Cuestiones y horizontes. Antología esencial, De la dependencia histórico-estructural a la colonialidad/descolonialidad del poder*, CLACSO, Buenos Aires.

<sup>272</sup> CHOWDHRY, Geeta eta Sheila NAIR (arg.) (2004), *Power, Postcolonialism...*, op. cit. 15. or.

NAIR, Sheila (2017), «Introducing Postcolonialism...», op. cit.

tza. Horretarako, Foucaulten eta Agambenen botereari buruzko analisi-kategoriak erabiltzen dituzte (postestrukturalismoari buruzko kapituluan ikusi genituen). Bereziki, sarritan erabiltzen dute *biopolitika globalaren* kontzeptua: Mendebaldeak erabiltzen duen mekanismo multzoa Hegoaldeko gizarteak kontrolatzeko eta egonkortzeko (nazioarteko kooperazioa, giza eskubideak sustatzea, esku-hartze militarra, etab.), haien gobernantza eta garapena lortzeko, bai eta haien aldetiko mehatxuak neutralizatzeko ere. Duffielden arabera, Hegoaldeko gizartearen gobernantzarako, Mendebaldeak *garapen liberaleko konplexuak* deritzonak erabiltzen ditu, zeinak askotariko parte-hartzaile nazionalak eta nazioarteko osatzen baitira (gubernuak, nazioarteko erakundeak, multinazionalak, etab.)<sup>274</sup>. Mendebaldeak Hegoaldeko herriak kontrolatzeko duen helburu hori indartu egin da, 90eko hamarkadatik zabaldu den ideia batekin, zeinaren arabera herrialde horien azpigarapena arriskutsua baita eta Iparraldeko herrialdeen segurtasuna mehatxatzen baitu (gera zibilak, terrorismoa, etab.).

Egile batzuek diotenez, garai kolonialeko kontrol biopolitikoaren jardunbideak (esklabotza, lekualdaketa behartua, etab.) oraindik ere indarrean daude gaur egungo politika globalean<sup>275</sup>. Achille Mbembe-k azpimarratzen duenez, garai kolonialean bezalaxe, oraindik ere arrazen hierarkizazioa dago, eta, ondorioz, pertsona batzuen bizitzak beste batzuenak baino gehiago balio du. Garai kolonialean, biopolitikak esklabotza, indarkeria eta eskubide-kentzea erabiltzen zuen zibilizazioaren zerbitzura. Haren ustez, XXI. mendeko kapitalismoaren berezko gobernantzak logika bera du, *nekropolitika* deritzona baitu bereizgarri: biztanleriak kudeatzeko modu bat, zeinetan talde jakin batzuen bizitzak ez baitu baliorik nazioarteko botere batzuentzat, eta botere horiek erabakitzen baitute nor bizi behar den eta nor hil daitekeen une jakin batean (gerrak, krisi humanitarioak, etab.). Hala, *nekrobotere* deritzonak egoera jakin batzuk sortzen ditu, eta, horietan, Hegoaldeko zenbait biztanleriaren bizitzak, bereziki Afrikakoak, oso gutxi balio du; hala, bizitzeko segurtasun falta larriko egoeretan bizi dira, «hildako bizi» moduan, eta inpunitatez eraman daitezke heriotzara<sup>276</sup>.

<sup>274</sup> DUFFIELD, Mark (2005), «Getting Savages to Fight Barbarians: Development, Security and the Colonial Present», in *Conflict, Security and Development*, 5. lib., 141.-159. or.

<sup>275</sup> PATEL, Rajeev eta Philip McMICHAEL (2004), «Third Worldism and the Lineages of Global Fascism: The Regrouping of the Global South in the Neoliberal Era», in *Third World Quarterly*, 25. lib., 1. zk., 231.-254. or.

<sup>276</sup> MBEMBE, Achille (2011), *Necropolítica*, Melusina argitaletxea, Bartzelona (Argitaletxea, 2003).



## 10.6. Segurtasuna, bakea eta garapena

Ikasketa postkolonialek segurtasunari eta bakeari buruzko auzietan ere jarri dute arreta, bai eta garapenari buruzkoetan ere, ezagutzaren eta bote-rearen arteko harremana azaleratzeaz kezkatuta. Esaterako, kritikatu dute segurtasunari buruzko ikerketa klasikoak, eta ikerketa kritiko batzuk ere bai, oso eurozentrikoak direla<sup>277</sup> eta, horren ondorioz, ez direla gai Hegoaldeko gizartectako segurtasun (ezaren) egoera ulertzeko. Eurozentrismo horrek hainbat alderdi ditu. Batetik, gaiari buruzko ikerketek estatu subiranoen arteko gatazketan jarri dute arreta; zehazki, Gerra Hotzean egindakoek norgehiagoka bipolarra izan zuten hizpide, eta alde batera utzi zituzten herrialde txiroetako gatazken kausak eta tokiko dinamikak; Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko borrokari eragiten ziotenean soilik hartu zituzten horiek kontuan<sup>278</sup>. Bestalde, segurtasunari buruzko ikerketen oinarrian daude Europako tradizio intelektuala (Ilustrazioa eta horren balioak) eta segurtasunari buruzko Mendebaldeko ikuskera, eta ikuskera hori estatuzentrikoa eta guztiz militarra da. Ondorioz, alde batera uzten dira Hegoalde globaleko pertsonen eta gizarteen segurtasun faltan eragin handia duten auziak; esaterako, pobrezia, baliabide-eskasia eta ingurumenaren narriadura. Horrez gain, segurtasunari buruzko ikerketa klasikoek Mendebaldea eta horren balioak hartzen dituzte zibilizazioaren gailur moduan, eta, hori dela-eta, Hegoaldeko herrialdeetan Mendebaldeko esku-hartze politikoak eta militarrek legitimatzen lagundu dute.

Mohammed Ayooob erreferentziazko egilea da segurtasunari buruzko ikerketetan etnozentrismoa kritikatzeari dagokionez, baina ez du lotura handirik ikasketa postkolonialekin. Haren ustez, ikuspegi errealista tradizionalak arreta osoa jarri du Mendebaldeko estatu westfaliarraren eremuan (lurraldea, biztanleria eta mugak kontrolatzea; indarkeriaren erabileraren monopolioa, etab.) oinarritutako segurtasun nazionalan. Horregatik, ez da egokia Hegoalde globalerako, bertako estatuek beste ezaugarri batzuk dituztelako (baliabide gutxiago, erakunde ahulak, ezegonkortasun sozioekonomikoa, etab.) eta beren segurtasun-arazoak ez datozelako kanpoko balizko mehatxuetatik, baizik eta gobernuak ezegonkortu ditzaketan barneko arazo politiko, sozial eta ekonomikoetatik<sup>279</sup>. Alternatiba modura,

<sup>277</sup> Ikus, adibidez: BILGIN, Pinar (2010), «The “Western-Centrism” of Security Studies: “Blind Spot” or Constitutive Practice?», in *Security Dialogue*, 41. lib., 6. zk., 599.-606. or.

<sup>278</sup> ACHARYA, Amitav (1997), «The Periphery as the Core: The Third World and Security Studies», en KRAUSE, Keith eta Michael C. WILLIAMS (arg.), *Critical Security Studies: Concepts and Cases*, UCL Press, Londres, 300. or.

<sup>279</sup> AYOOB, Mohammed (1997), «Defining Security. A Subaltern Realist Perspective», en KRAUSE, Keith eta Michael WILLIAMS (arg.), *Critical Security Studies. Concepts and Cases*, UCL Press, Londres, 121.-146. or.

Hegoaldeko estatuen segurtasun-arazoetara eta ezaugarrietara egokitutako segurtasun-ikuspegi proposatzen du. Alabaina, ikuspegi horrek ere kritikak jaso ditu, estatua segurtasunaren erreferentetzat mantentzen duelako, eta segurtasuna erregimenaren eta elite gobernatzailaren segurtasunarekin identifikatzen duelako, herriarenarekin beharrean<sup>280</sup>.

Aldiz, beste egile batzuek egin dituzte ekarpenak segurtasunari buruzko ikerketetan, ikuspegi garbiki postkolonialagoetatik. Tarak Barkawi eta Mark Leffey nabarmendu behar dira. Haien arabera, segurtasunari buruzko ikerketa ez eurozentrikoak behar dira, tradizionalak alde batera uzten baitituzte boteretik gabeko Hegoaldeko biztanleria ahulen segurtasun ezaren arazoak, eta mehatxu-iturri modura edo, kasurik onenean, kanpolaraguntzaren hartzaile gisa agertzen baitituzte. Diotenez, ikuspegi berri bat behar da, zeinak segurtasun-auziak aztertuko baititu, kontuan hartuta Iparraldearen eta Hegoaldearen, metropolien eta periferien, eta indartsuen eta ahulen arteko elkarrekintzako historia luzearen ondorio direla. Etnozentrikoa ez den ikuspegi hori behar da, esaterako, estatuarenak ez diren parte-hartzaileen terrorismoaren gorakada ulertzeko, Al Qaeda adibidez, Iparralde/Hegoalde mundu mailako harremanen esparruan; izan ere, ikuspegi tradizionalak ez dute tresna egokirik horrelako fenomenoak ulertzeko<sup>281</sup>.

Segurtasunaren arloko eztabaida zehatz batzuek *porrot egindako estatu* deritzenei (*failed states*) buruzko diskurtsoetan jarri dute arreta. Porrot egindako estatuak dira gerra zibilean dauden herriak, non estatuak lurraldearen zati baten kontrola galdu baitu. Horiei buruzko Mendebaldeko diskurtsoek oihartzun kolonialak dituzte: heldugabe, eskas eta kaotiko modura agertzen dituzte, eta anarkian eta indarkerian erortzeko joera dutela esaten dute; ondorioz, leheneratzen laguntzeko, haietan Mendebaldearen protektoratua ezartzea justifikatzen dute<sup>282</sup>. Diskurtso horien arabera, Iparraldea konponbidearen zati da, ez arazoarena; hala, herrialde horietako arazoan erantzukizun oro kentzeaz gain, Mendebalde demokratiko, arrazional eta moralki hobearen iruditeria indartzen dute. Irailaren 11ko atentatuaren ondoren, Terrorismoaren Aurkako Gerra Globalaren esparruan, porrot egindako estatuen diskurtsoak beste dimentsio bat hartu du: terrorismoak jarduteko base eta nazioarteko segurtasunerako mehatxu izan daitezkeela zabaldu da, eta horrek zilegi egin du haietan esku-hartze militarrek egitea<sup>283</sup>.

<sup>280</sup> Ikus ACHARYA, Amitav (1997), «The Periphery...», *op. cit.*, 303. or.

<sup>281</sup> BARKAWI, Tarak eta Mark LAFFEY (2006), «The Postcolonial Moment in Security Studies», in *Review of International Studies*, 32. lib., 329.-352. or.

<sup>282</sup> HELMAN, Gerald B. eta Steven R. RATNER (1993), «Saving Failed States», *Foreign Policy* 89: 3.-20. or.

<sup>283</sup> ABRAHAMSEN, Rita (2007), «Postcolonialism», *op. cit.*, 117. or.



Segurtasunaren arloan bezalaxe, hainbat egilek adierazi dute bakearen arloko ikasketetan ere joera edo jite mendebaldetar etnozentrikoa gainditu behar dela, eta orobat tokiko errealitate eta kulturekiko sentikorragoak izan behar direla. Arreta handiagoa jarri behar da bake-erakuntzako tokiko jardunbideetan; izan ere, tartean dauden herrien kulturaren, balioetan eta beharretan oinarritzen dira eta, ondorioz, haien parte-hartzea bultzatu eta prozesuen legitimotasun soziala handitzen dute. Hala, Kevin Avruch-ek gatazkak ebazteko ohiko ikuspegia kritikatu du, sarritan kulturekiko itsu delako, ez baititu kontuan hartzen tokiko gizartearen balioak eta ikuspegiak<sup>284</sup>. Ildo beretik, Mohammed Abu-Nimer-ek adierazi du Ekialde Ertainean eta beste herrialde musulman batzuetan ezarritako bake-erakuntzako estrategiek arrakasta mugatua izan dutela, erlijio eta kultura islamikoari buruzko zenbait estereotipotan oinarritu direlako, zeinak intolerantetzat, gerrazalezat eta demokraziarako, garapenerako eta bakerako joera gutxikotzat jotzen baititu. Aldiz, nabarmentzen duenez, tradizio islamikoko zenbait sinesmen eta jardunbide erabilgarriak izan daitezke gatazkak indarkeriarik gabe kudeatzeko<sup>285</sup>.

Azkenik, ikuspegi postkolonialek (postestrukturalistek bezala) garapenaren diskurtsoa eta jardunbideak ere kritikatu dituzte, kolonialismoaren berezko egitura eta harreman asko mantentzeko funtzioa betetzen dutelako. Zenbait egilek adierazi dutenez —esaterako, Arturo Escobarrek<sup>286</sup>—, garapenaren kontzeptua testuinguru jakin batean sortutako diskurtsoa da; hain zuzen ere, indar sozial, ekonomiko eta politiko jakin batzuen botereak markatutako testuinguruan sortu zen, eta Mendebaldearen zenbait printzipiotan oinarritzen da, hala nola hazkundean, aurrerabidean eta eraginkortasunean. Horren ondorioz, herrialde garatu eta azpigaratuen arteko sailkapena sortu da, eta horrek ikuskera bat zabaldu du: Iparraldeak Hirugarren Mundua kontrolatzeko eta bertan esku hartzeko eskubidea du, horren egiturak eta bizimoduak erreformatzeko eta garapenaren estandarrak lortzeko. Horregatik, uste dute garapenaren diskurtsoa botere-mekanismoa dela nazioarteko harremanetan<sup>287</sup>.

<sup>284</sup> AVRUCH, Kevin (1998), *Culture and Conflict Resolution*, United States Institute of Peace, Washington.

<sup>285</sup> ABU-NIMER Mohammed (2003), *Nonviolence and Peace Building in Islam*, University Press of Florida, Florida.

<sup>286</sup> ESCOBAR, Arturo (1996), *La invención del Tercer Mundo. Construcción y Deconstrucción del Desarrollo*, Norma argitaletxea, Bogota (1. argit. ingelesez: 1995).

<sup>287</sup> JAMSEN, Rita (2007), «Postcolonialism», *op. cit.*, 116. or.

### 10.7. Mendekoen erresistentzia

Egile postkolonialek arreta handia jartzen dute batez ere Hegoaldeko kolektibo mendeko eta baztertuek boterearen (koloniala edo postkoloniala) aurka egiteko dituzten mekanismoetan. Helburua ez da soilik haien egoera aztertzea; batez ere agerian jarri nahi dute nola jarduten duten zapalkuntzari aurre egitean, injustiziaren alternatibak bilatzean eta Iparraldearekiko harremanak eraldatzen saiatzean. Interes horrek, postestrukturalistekin partekatzen dutenak, diziplinako korrante nagusietatik aldentzen ditu, horiek boteredunen jokabideetan jartzen baitute arreta, nagusiki. Ahotsa eman nahi diete historikoki isilarazitako sektoreei, historia haien ikuspegitik kontatu nahi dute, ahaldundu daitezten. Baina, horrez gain, hori egite hutsa subertsio era bat dela diote, «diskurtso nagusien hegemoniarekin hausteko modua» baita<sup>288</sup>.

Alabaina, boterearekiko erresistentziari buruz duten ikuspegia ez da gizarte-zientziek izan ohi dutena bezalakoa, azken horiek menderatzailearen aurkako zuzeneko borrokako mekanismoetan ardatzen baitira (iraultzak, borroka armatua, mobilizazio politiko handiak). Aldiz, arreta jartzen dute batez ere eguneroko erresistentzia mota batean, neurri handi batean dimensio diskurtsiboetan oinarritzen dena. Hain zuzen ere, batetik, Foucaulten ideiarri jarraitu diote, zeinaren arabera botereak maila txikiko prozesu eta harremanen bidez jarduten baitu; bestetik, Scott-ek aginteari kritika eta erresistentzia egiteko eguneroko eta ezkutuko moduei buruz idatzitakoa ere kontuan hartu dute<sup>289</sup>; horrenbestez, egile postkolonialek arreta berezia jarri dute eguneroko bizitzako askotariko erresistentzia moduetan eta boterearen aurkako borroka txikietan (oso sotilak diren batzuk barne, esaterako, satira, txutxu-mutxuak eta herri-arteak). Are gehiago, lehen aipatu dugun hibridotasuna ere erresistentzia modutzat hartzen dute, zapalduak hala garai kolonialean nola gaur egun erabili baitute menderakuntzara egokitzeko eta horri aurre egiteko<sup>290</sup>.

### 10.8. Ekarpenak eta kritikak

Korrante postkolonialak presentzia mugatua du NHetan; hala, ez da agertzen irakaskuntzako gidaliburu eta programa askotan. Zenbait arrazoiengatik gertatzen da hori: oso kritikoa da hala diziplinarekiko nola na-

<sup>288</sup> *Ibidem*, 119. or.

<sup>289</sup> SCOTT, James (1990), *Domination and the Art of Resistance*, Yale University Press, New Haven (AEB).

<sup>290</sup> ABRAHAMSEN, Rita (2007), «Postcolonialism», *op. cit.*, 120. or.



zioarteko ordenarekiko, Hegoaldearen eta baztertutako sektoreen ikuspegiak ordezkatzeko dituzte, eta lehentasuna ematen die korrante nagusiek zein kritikoei alde batera utzitako ikuspegi eta dimentsioei. Alabaina, onartu behar da agertu zenetik tresna teoriko berritzaile eta alternatibo ugari eman dituela. Tresna horiek, batetik, diziplinaren mugei eta jitei buruz hausnartzen eta, bestetik, munduaren eta desberdinkerien konplexutasuna ulertzen lagundu dute.

Hain zuzen ere, lan postkolonialek modu erradikalean kritikatu dituzte diziplinaren oinarri teorikoak eta betetzen duen funtzioa. Hala, duen izaera mendebaldezentrikoa salatu dute, Mendebaldearen esperientzia historikoan, kontzeptuetan, diskurtsoetan eta arazoetan oinarritzen delako eta horiek, unibertsalak ez izateaz gain, herri kolonizatuei inposatu zaizkie, haien errealitateak alde batera utzita. Era berean, diziplinaren izaera estatuzentrikoa eta elitista kritikatu dute (arreta estatuetan, segurtasun militarrean, diplomazian eta abarretan jartzen duelako), eta Hegoaldeko herrien eta talde zapalduen ikuspegiak ekarri dituzte; ondorioz, gai eta ikuspegi berri ugari sartu dituzte NHeetako eztabaidetan.

Are gehiago, ezagutzaren eta boterearen arteko harremana dela-eta, haien ustez, diziplinaren ikuspegi eta diskurtso hegemonikoak nazioarteko ordenaren konplize dira eta hura mantentzen laguntzen dute. Kolonialismoa pertsonen pentsamoldean errotuta dagoenez, hura gainditzeko, ezagutza deskolonizatu behar da, hots, diziplinaren eta beste gizarte-zientzia batzuen oinarriak deskolonizatu behar dira.

Aipatu behar da postkolonialismoak ere desberdintasunak dituela beste korrante kritiko batzuekin, nahiz eta elementu batzuk partekatu (bereziki postestrukturalismoarekin). Hala, adibidez, zalantzan jarri du emantzipazioaren helburua, Mendebaldeko filosofia politikoaren printzipio eta balioetan oinarritzen delako eta, beraz, ez duelako balio beste gizarte batzuetarako. Emantzipazioa Teoria Kritikoaren erreferentzia da, bereziki. Halaber, klase-borroka eboluzio historikoaren motorra dela dioen marxismoaren ideia kritikatu du. Haren ustez, arreta gizarte-klaseen soilik jartzen duen azterketa batek ezingo du azaldu Hegoaldeko herrietako bazterketa ekonomiko iraunkorra. Hain zuzen ere, azterketak arreta jarri behar du pentsamolde eta diskurtsoetan (atzeratu eta irrazionalizatzen dituen ustean), identitateetan, bai eta arrazak historia eta oraina moldatzeko duen rolean ere (beste korrante batzuek alde batera uzten dute faktore hori, postestrukturalismoak izan ezik). Ildo horretan, bereziki interesgarria da *intersektionalitatearen* ideia, hau da, hainbat faktoreen arteko elkarrekintza (klasea, arraza, etnia, generoa), eta horrek desberdinkeriak ezaugarritzen duen ordena globalaren osakeran duen eragina. Aurrekoarekin lotuta, interes handia jartzen du, halaber, *kokatutako* esperientziak aztertzekeo premian, hau da, taldeek eta pertsonen in-



justizia eta zapalkuntza bizitzen duten testuinguru zehatzak aztertze beharrean.

Bigarrenik, diziplinari egiten dion kritika teorikoaz harago, postkolonialismoak ekarpen nabarmenak egin ditu gaur egungo mundua hobeto ulertzeko. Esaterako, garai kolonialean sortutako zenbait elementu aztertutako, zeinek ahalbidetu baitzuten Mendebaldeak gainerako herrialdeak kulturalki, ekonomikoki eta politikoki menderatzea. Elementu horiek oraindik ere existitzen dira, eta munduko politikaren bereizgarri dira<sup>291</sup>. Horiek horrela, nazioarteko sistema anarkikoa dela dioen ideia errealistaren aurrean, postkolonialek diote nazioarteko ordena hierarkikoa bizi dugula, non Iparraldea baita nagusi. Eta gero eta globalizatuago dagoen munduari buruzko ikuspegi horri dagokionez, argitzen dute Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko interdependentzia dagoela, baina desberdinkeria sakon batean oinarritzen dela eta Iparraldeak kulturalki, politikoki eta ekonomikoki menderatzen duela Hegoaldea.

Dena dela, zenbait egilek postkolonialismoa kritikatu dute, Dirlik-ek eta Williams-ek, esaterako<sup>292</sup>. Lehenengo kritikak dio funtsean Mendebaldeko joera dela; izan ere, korrontearen ordezkari asko Hegoaldetik datoz, baina Iparraldeko unibertsitateetan lan egiten duen elite intelektual bat osatzen dute, eta ikuspegiaren oinarri teoriko batzuk (marxismoa, postestruturalismoa) Mendebaldekoak dira. Neurri batean egia den arren, argitu behar da pentsaera postkolonialak ez dituela alde batera uzten askotariko jatorria duten ekarpenak, eta kolonia zaharretako pentsalari askotan ere oinarritzen dela.

Bigarren kritika baten arabera, postkolonialismoak aztertzen dituen auziak (botere kolonialaren alderdi diskurtsiboak, kulturalak eta psikologikoak) bolizko dorrean dauden akademikoen kezka hutsak dira, eta ez dute garrantzirik txiroentzat. Aldiz, ez ditu aztertzen sistema ekonomiko globalaren faktoreak (kapital transnazonala, kanpo-zorra, merkataritza-protektionismoa, etab.), eta horiek dira klaseen eta herrialdeen arteko egiturazko desberdinkeria eragileak. Era berean, ez ditu aztertzen gaur egungo arazo sozial eta politiko garrantzitsuenak. Rita Abrahamsenek bi argudio erabili ditu kritika horiei erantzuteko. Batetik, azken urteotan, gero eta egile postkolonial gehiagok aztertu dituzte gaur egungo askotariko arazo politiko eta ekonomikoak, esanguratsuak direnak egiturazko desberdinkeria ekonomikoetarako (krisi ekonomikoa, gatazka armatuak, nazioarteko

<sup>291</sup> NAIR, Sheila (2017), «Introducing Postcolonialism...», *op. cit.*

<sup>292</sup> DIRLIK, Arif (1994), «The Postcolonial Aura: Third World Criticism in the Age of Global Capitalism», in *Critical Inquiry*, 20. zk., 228.-256. or.; eta WILLIAMS, Adebayo (1997), «The Postcolonial Flaneur and other Fellow Travellers: Concepts for a Narrative of Redemption», in *Third World Quarterly*, 18. lib., 5. zk., 821.-841. or.



esku-hartzeak, etab.), eta ez dute hainbesteko arreta jarri kultura-azterketetan, hasieran egiten zuten moduan. Bigarrenik, postkolonialismoak zailantzan jartzen ditu diskurtso hegemonikoak, zeinak finkatutako egia gisa aurkeztuta baitaude, eta horrek agerian jartzen du gaur egungo ordena sozial eta politikoa kontingentea dela, hots, alda daitekeela. Hala, adierazten duenez, indarrean dagoen ordena diskurtso hegemoniko jakin batzuetan oinarritzen denez, postkolonialismoak horiei egindako kritikek gizartea eta politika eraldatzen lagundu dezakete, nahiz eta iruditu korrontearen analisiek politikan berehalako aplikaziorik ez dutela<sup>293</sup>.

---

<sup>293</sup> ABRAHAMSEN, Rita (2007), «Postcolonialism», *op. cit.*, 121. or.